

# DROGETEN

ITURRI

Ermua eta Mallabiko aldizkaria. 226. zkia. 2014ko iraila



**Jabi Alberdi eta Eva García:  
-40° Himalayan**





# LANTALDE PROFESIONAL BIKAINA IZEN-ABIZENEKIN



**ZERBITZU INTEGRAL AKREDITATUA**

**ETENGABEKO ORDUTEGIA**



Doctor **Antonio Murillo**

Hezur Birsortuntza eta ehun bigunen Maneiuko Zuzendaria. **Leidako Unibertsitatea eta Madril.**  
Periodontzia Koordinatzailea, Odontologian Lizentziatua. **Alfonso X.a Unibertsitatea. Madril.**  
Implantologia Masterreko Irakaslea. **Leidako Unibertsitatea.**  
Kirurgia Masterreko Irakaslea. **Salamanca Unibertsitatea.**  
Unibertsitate Institutuetako Irakasle gonbidatua. **Madrilgo Unibertsitate Konplutensean eta Bartzelona, Sevilla, Almeria, Lleida, Leon, Malaga... Unibertsitateetan.**

Doctora **Ainhoa Zulueta**

Odontologian Lizentziatua. **Euskal Herriko Unibertsitatea.**  
Unibertsitate Aditua Aho Kirurgian, Periodontzian, Implantologian. **Leongo Unibertsitatea.**  
Diplomatua Aho Kirurgian. **Bartzelonako Unibertsitatea.**  
Hortz-Estetikan Diplomatua. **Madrilgo Unibertsitate Konplutentsean.**  
Hortz-Estetikan Diplomatua. **Autran Institutoa, Bartzelona.**  
Etengabeko Formakuntza. **New York-eko Unibertsitatea.**  
Oklusioan Graduondoa. **Anibal Alonso Doktorea.**



**Astelehenetik ostiralera:**  
**8:00etatik 22:00etara**

**Zapatuetan:**  
**10:00etatik 14:00 etara**

**Eibarko Dendarien Elkarte**  
ABANTAILA HANDIAK ELKARTEAREN TXARTELAREKIN ORDAINDUZ  
**Galdetuiguazu!**



**MUTUAK ETA ASEGUURAK**

GLOBAL CARD, OCASO, EMESA PREVENCIÓN, CARREFOUR LIFE, AZKARAN, FRATERNIDAD, IMQ, SANTA LUCÍA, PREVISORA BILBAINA, AEGÓN/STONEBRIDGE, AVANTSALUD, PADI...  
**Galdetuiguazu!**



**IRAZABAL**

clínica dental

**FINANTZIAZIO BEREZIA**

Abantaila ekonomiko handiak eta finantziario aukera ezinhobeak. **GALDETU**

Julián Etxeberria, Nº 12 - 1º - 20600 EIBAR - Tel.: 943 20 85 52 - www.clinicairazabal.com



**ARGITARATZAILEA:**

Euskal Birusa  
Elkarte Kulturala.

**HELBIDEA:**

Erdikokale zeharbidea 2, 1.  
247 posta-kutxa  
943 17 93 50 / 688 63 28 76  
drogeten@gmail.com  
www.euskalbirusa.org

**ERREDAKZIO TALDEA:**

Alazne Aiestaran,  
Igone Amesti, Ibaia  
Azagirre, Leire Elustondo,  
Estibalitz González  
eta Dorleta Vidal.

**KOORDINAZIOA**

**ETA MAKETAZIOA:**

Dorleta Vidal.

**HIZKUNTZ ARDURADUNA:**

Alazne Aiestaran.

**AZALEKO ARGAZKIA:**

Eva García eta Jabi Alberdi.

**LAGUNTZAILEAK:**

Amaita Arriaga, Antonio  
Hernández 'Cuco',  
Fede Iturriagagoitia,  
Patxi López,  
Pello Mugarza, Valentín  
Mugarza eta Isa Prieto.

**ARGAZKIAK:**

Jabi Alberdi, Igone Amesti,  
Amaita Arriaga, Ibaia  
Azagirre, Leire Elustondo,  
Eva García, Estibalitz  
González, Interbiak,  
Beñat Mallabia, Valentín  
Mugarza, Ermuko Udala eta  
Dorleta Vidal.

**PUBLIZITATEA:**

943 17 93 50 / 688 63 28 76  
drogeten@gmail.com

**INPRIMATEGIA:**

Gertu Koop. (Oñati).

**BANAKETA:**

Ainitze Antxia, Nora Mateos  
eta Olatz Vidal.

**TIRADA:**

2.425 ale.

**ISSN:**

1133-973X.


**LEGE GORDAILUA:**

SS-215/94.

*Drogeteniturrrik ez du  
bere gain hartzen  
aldizkarian adierazitako  
iritzien erantzukizunik.*

# Bertoko ugaztunak

...Gure baserritarren ahotik



“Bertoko Hegaztiak” sail amaitu berriak Fede Iturriagagoitia ornitologoa izan zuen bezala informazio-iturri, hurrengo alean hasiko dugun “Bertoko Ugaztunak” saila Mallabia eta Ermuko hainbat baserritarren behaketa eta jakituriaren isla izango da. Zatozte ba etxe-etxe basapiztion gordelekue-tara!

## Hilabete honetan...

MUNDUKO AHOTSAK.....4  
Sami Kechairi (Aljer)

ELKARRIZKETA.....5-7  
Beñat Mallabia biokimikoa

MALLABIAN ZER?.....8-9  
Karmele Gisasola kirolaria

MOTZEAN.....10-12  
Badator San Martin Azoka!

ERREPORTAJEA.....14-15  
1794an, Ermua kiskalduta

BOTEPRONTOAN.....16  
Daniel Dominguez

KIROLZALE.....17  
Eva García eta Jabi Alberdi  
Himalayan

IRITZIA.....18  
“Gizabanakoen arduraren zen-  
tzuaren inguruan”, Isa Prieto.

SALEROSKETAK.....19  
Saldu, erosi edo agurtu

ANTZINAKOAK.....20  
Ermuko eta Mallabiko argazkiak

KALEKO INKESTA.....21  
Urtebete eta gero, TAOk bere  
helburua betetzen du?

AGENDA.....22  
Urriko agenda

### Ondorengo erakundeek diruz lagundutako aldizkaria:



AYUNTAMIENTO DE LA VILLA DE ERMUA  
ERMUA HIRIKO UDALA



MALLABIKO UDALA



Bizkaiko Foru Aldundia  
Diputación Foral de Bizkaia



EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA  
ETA KULTURA SAILA  
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,  
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA  
Viceconsejería de Política Lingüística



## Sami Kechairi

Zazpi urterekin utzi zuen Samik bere jaioterria, Aljer, familiarekin Ermura etortzeko. Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzako 3. maila ikasten dihardu egun, Sarrikon, eta futbolean jokatzeko du. Bere jatorria eta erlijioa ahaztu barik, erronka berriei aurre egiten jarraitzeko gogotsu dago.

**- Zergatik erabaki zuen zure familiarekin Aljeriatik joatea?**

Nire aita polizia zen, polizien irakaslea. Garai horretan Aljer ez zen oso segurua, eta alde egin behar izan genuen. Aita etorri zen aurretik, eta handik 3 hilabetera, ama, arreba txikia eta ni. Duela 8 urte Mendaron jaio zen anaia ere badut.

**- Aldaketa erraza izan zen?**

Bai. Hasieran arraro samarra da —leku bat Afrika delako eta bestea Europa—, baina hilabeteen ohitu nintzen.

**- Gaztelaniaz bazenekien?**

Ez, apenas. Ikasturte erdian etorri ginenez, eskolara eraman ninduten, eta asko lagundu zidaten: talde berezian ipini, eta ordenagailu eta grabazioei esker ikasi nuen. Sei hilabetetan ondo hitz egiteko gai nintzen. Oso ondo hartu ninduten hemen eta arin egin nituen lagunak.

**- Arbuiorik sentitu duzu inoiz?**

Txikitan irainak jaso nituen, baina gaur egun ez diet horrelako kontuei kasurik egiten. Nik ez nuke inor baztertuko, bere herrialdean ondo ez daudenak etortzen direlako hona, hemengoak beste leku batzuetara doazen bezala.



**- Zerk harritu zintuen gehien?**

Hemen arau zorrotzagoak daudela. Aljerian nahaste handia dago: nahi duzuna egin dezakezu nahi duzunean, inork ez dizu ezer esango. Hemengoa nahiago.

**- Ohitura musulmanak dituzu?**

Erligioari lotutako ohiturak daude alde batetik, eta kulturari lotutakoak bestetik. Ohitura erlijiosoa —hau da, Islamak agintzen duena—, errespetatzen ditut, jakina: Ramadana, bildotsaren jai... Kulturaletan, aldiz, ez dut hemengo ohiturekin alde handirik ikusten.

**- Zer botatzen duzu faltan?**

Familia, gehien bat. Lagunak, lekuak, sentsazioak, usainak... Malenkonia sortzen zaizu.

**- Janariaren usaina, esaterako?**

Gauza guztiena. Han bero itzela egiten duenez —45 gradutik gora udan— usainak biziagoak dira: landareena, lurrarena...

**- Bertara bueltatzen zara?**

Bai, bi urtetik behin, udan. Eta familiarekoak ere etortzen dira.

**- Ondo moldatzen zara hizkuntzekin?**

Bai, arabiera da nire ama hizkuntza eta gaztelania ere primeran hitz egiten dut. Aljerian frantsesa ere hitz egiten da eta ingeles apur bat. Lehenengoa ahazten ari zait; bigarrenarekin, ederto nabil.

**- Eta euskarari serio ekiteko asmorik baduzu?**

Gustatuko litzaidake, baina zaila egiten zait. Gainera denbora behar dut: gidabaimena atera nahi dut, ikasketak, First azterketa, entrenamenduak...

**- Futbolean ere aritzen zara...**

Bai, 4 urte daramatzat Anaitasuna taldean eta oso gustura nago.

**- Nola ikusten duzu zure burua etorkizunean?**

Enpresa baten zuzendaritzan lan egitea gustatuko litzaidake, nire familiarekin.

Dorleta Vidal

**SAN ANTONIO**

OKINDEGIA  
GOZOTEGIA

Izelaieta, 40 Tel. 17 00 63  
Zubiaurre, 12 Tel. 17 38 40

**AIZ**

**AIZ**  
Garraioak, S.L.

☎ 636 95 83 39 (JULEN)

**ZABAL**

**ERMUA**

**IKASTOLA**  
1968tik Ermua euskalduntzen



Beñat Mallabia, biokimikoa:

## “Ondo irteten zaidan esperimentu bakoitza, medikuntzarako aurrerapausoa da”

Biologia, Genetika eta Biokimika ikasketak ditu gazte honek, eta aspaldian ez da Ermuan bizi: duela 8 urte Madrilera joan zen ikastera eta 2012az geroztik San Frantziskoko hirigunean bizi da, AEBtan, Downtown eta Sunset artean, Cristina neska-lagunarekin. Egunero doa berarekin UCSF-ra lanera (University of California, San Francisco), laborategi ezberdinetan lan egiten duten arren: biriketako gaitzetan Beñatek eta umeen leuzemian Cristinak. Maite du lanera bizikletan joan ahal izatea eta Yellowstonek ahozabalik utzi zuen. Gainera, bere nahia egi bihurtu zen abuztuan, 6,3 graduko lurrikara sentitu eta gero. Elkarrizketa bukatu eta handik bi ordura, oporretan Hawaiiira joateko hegazkina hartu zuen, eta Gabonetan Ermuan egun batzuk igarotzeko asmoa du.



**- Aspaldi utzi zenuen Ermua zure ikasketak burutzeko, ezta?**

Bai, Biologia ikasi nuen Bilbon eta 2 urtez Genetikan espezializatu nintzen Madril-en. Biokimika-doktoregoa egin nuen ondoren, 6 urtez, eta bukatutakoan San Frantziskora etorri nintzen doktoratu-ondoko ikasketak burutzera eta lan egitera. Hemen bi urte daramatzat, beraz, 8 urte eman ditut jada Ermutik kanpo.

**- Zein lan egiten duzu San Frantziskon?**

Gizakien biriketako gaixotasunak sendatzeko egiten dut lana. Laborategiko lana da: saguekin esperimentuak egiten ditugu, pertsonen odolarekin... Saguei biriketako transplanteak egiten dizkiegu eta transplante horietan, gizakiek izaten dituzten arazoak konpontzen saiatzen gara. Jarraian, gizakien odola hartu eta zerbait konpondu dezakegun begiraten dugu. Hurrengo pausua izango litzateke, gizakien transplanteetara pasatzea, baina guk aurretik eman behar diren pausu horietan dihardugu.

**- Bakarkako lana da?**

Nire sailean 3 doktorego-ondoko gaude, zirujau bat eta nagusia. Nagusiak proiektu bat ematen dizu eta zuk esperimentu ezberdinak egin behar dituzu proiektu horren inguruan. Batzuetan elkartu egiten gara gauzak konparti-

tzeko, baina oro har, bakoitzak bere lana du eta bere ideiak garatu behar ditu. Gure helburua da lortzen ditugun emaitza onak aldizkari zientifikoetan kaleratzea. Hurrengo pausua farmazeutikoek emango lukete: medikamentua patentatu, giza-kietan esperimentuak egin, dosi eta toxikotasuna aztertu... Zerbait argitaratzen denetik, giza-kietan erabili arte, 5 bat urte igarotzen dira.

**- Badakizu farmazeutikoren batek zuk ikertutakoa lantzen diharduen?**

Ez, momentuz ez, baina gustatuko litzaidake, jakina. Ikerketa oso polita da eta esperimentu gehienak gaizki irteten diren arren, bat ondo irteten denean, aurrerapausoa da. Ematen dugun pausu bakoitza medikuntzak ematen duen pausua. Guk lan hau egiten ez badugu, medikuntza ez doa aurrera.

**- Zure ikasketak direla-eta, aukera gehiago dituzu AEBtan hemen baino?**

Gaur egun Euskal Herrian badaude ikerketa zentroak, baina haien bolumena ezin da hemengoekin alderatu. AEBtan ikerketarako dagoen aurrekontuak hirukoiztu egiten du Europakoa. Nire esperantza Euskal Herrira bueltatzea da, lanera, baina momentuz ez da erraza izango.

**- Krisiak horretan ere eragina izango du, ezta?**

Bai, krisiak ez du laguntzen. Hala ere, hemen iker-



ketarako dagoen diruaren erdia baino gehiago pribatua da: enpresa pribatuek dirutza inbertitzen dute. Han, berriz, diru publikoarekin egiten da ikerketa, eta horrekin lehiatzea ez da erraza, jakina.

**- Zer da zure lanetik gehien estimatzen duzuna?**

Madrilen antzerako lana egiten nuen, baina han dirua askoz gehiago begiratu behar nuen, ideiek askoz seguruagoak izan behar zuten martxan ipini aurretik... Hemen, diru gehiago dagoenez, edozein ideia probatzen uzten dizute. Aukera gehiago dago.

**- Ondorioz, asmatzeko aukerak ere ugariagoak izango dira...**

Noski, zenbat eta material gehiago, orduan eta aukera gehiago. Gainera esango nuke amerikarrek euren artean kolaboratzeko ohitura handiagoa dutela han baino.

Lehia egon arren, gauzak elkarri uzteko edo laguntzeko joera dute.

**- Lanean, badao amerikarrengandik ezberdintzen zaituen ezer?**

Europarrok bazkaltzeko gerratu egiten garela. Bazkalorduan, Cristina eta biok frantses eta aleman batzuekin elkartzen gara. Amerikarrek, aldiz, ordenagailu aurrean bazkaltzen dute, lana utzi barik. Bestalde, etorri aurretik uste nuen hemen sekulako presioa zegoela, ordu pila sartzen zirela... baina egia esan, ez dago alde handirik.

**- Erraza izan zen bertara joateko erabakia hartzea?**

Printzipioz bai. Madrilen ikasten nengoenean ezagutu nuen neska-laguna, Cristina (Aranda de Duerokoa da bera), eta doktoregoa bukatutakoan bagenekien ezin izango genuela Madrilen jarraitu. Hor bi aukera genituen: ikerketa laga edo la-

**“Hemen diru gehiago dagoenez, asmatzeko aukera gehiago dugu”**



Drogeteniturrri, 226 zkia.




**ZERMIK**  
SISTEMA ELEKTRONIKOEN GARAPENA  
DESARROLLO DE SISTEMAS ELECTRONICOS  
ELECTRONIC SYSTEM DEVELOPMENT

ZERMIK INGENIERIA S.L. mikrokontrolatzaile bidezko diseinu elektronikoak garatzen espezializatua dagoen ingeniari-tza-enpresa da. Horrez gain, LabVIEW-ren bitartez sistema industrialen kontrola eta monitorizazioa bideratzeko gaitasuna ere badu.

[www.zermik.com](http://www.zermik.com)

Usaetxe plaza 6-8, behea  
Arrasate-Mondragon (Gipuzkoa)  
Telf: 943 23 10 12

nez aldatu. Orduan, nora joan nahi genuen pentsatu eta gero lana bilatu genuen.

- **Biok segituan lana topatzea ez da makala!**

Berak nik baino lehenago bukatu zuen tesia. Zortzi hilabete lehenago etorri zen eta lana topatu zuen UCSFn. Ni etorri nintzenez, elkarriketak egiten nituen bitartean, turismoa egiteko aprobeztatu nuen. Baina ez nekien uztaila eta abutzuan hemen ez dagoela udarik, behe-laino garaia da! Horrek asko harritu ninduen!

- **Gustuko duzu San Frantzisko?**

Bai, oso ondo dago bizitzeko. Jende gaztearentzako, 20 eta 35 urte bitartekoentzako, hiri honek gauza asko ditu: parke mordoa, ekintza

eta taberna asko, gazte pila... Adin horretatik aurrera, familia izateko garaian, ez da hain aproposa oso garestia delako. Haurtzaindegiak, adibidez, 2.000 eta 3.000 dolar inguru balio du hilean.

- **Zein da San Frantziskon bizitzearen alderik txarre-na?**

Etxebizitza topatzea oso zaila dela, eta oso garestiak direla. Gure etxeak logela bakarra du eta 2.000 dolar ordaintzen ditugu hilerok. Hala ere, suertea izan genuen, azken urtean pisuak %50 garestitu direlako. Hemendik oso gertu dago Silicon Valley, eta bertan Cupertino, Google eta Apple enpresak daude, besteak beste. Hori dela-eta, jende asko dago San Frantziskon diru asko duena.

## "Hurrengo pausua, Europara bueltatu eta laborategia zabaltzea"

- **Nolakoak dira amerikarrak?**

Jendea oso jatorra da, han baino gehiago, eta laguntzeko prest daude ezagutu barrik. Gauza bitxia? Kartera tabernako barran utz dezakete eta kalera irten arduratu barrik... Maila politikoan, ordea, ez dute presidentek egindakoa sekula zalantzan ipintzen, munduko liderrak dira... Deigarria da.

- **Zer egiten duzu denbora librean?**

Kalifornian parke nazional asko dago, Yosemite eta Tahoe, esaterako, eta horiek bisitatzeko aprobeztatzen dugu. Gehien gustatu zaidana Yellowstone izan da. Bestalde, ez dago poteorik, ez pintxorik, ez txorixo, ez urdaiazpikorik... Baina gauza on bat daukate: barbakoak!!

- **Zer botatzen duzu faltan?**  
Familia eta lagunak. Oso ondo bizi gara, baina oso urruti. Hasieran distantzia ondo daramazu, baina momentu bat heltzen da noiz gero eta sarriago joan nahi duzun etxera. Eta momentu hori heltzen hasi da. Lagu-

nak etorri izan dira bisitan, baina urrun gaude.

- **Nola darama zure familiarik zu hor egotea?**

Animatzen naute beti, badakitelako han ez daukadala aukera handirik. Baina aldi berean pena ematen die. Pozik daude, baina...

- **Eta zer suposatzen du zuretzat Cristina zurekin egoteak?**

Dena! Hemen aguantatzea edo ez aguantatzea. Familia erdia hemen dudala sentitzen dut. Bakarrik etorrita ez nuke asko iraungo.

- **Zein da etorkizunerako duzun asmoa?**

Hasierako asmoa zen 3 eta 5 urte hemen ematea eta Europara bueltatzea. Espainian badakigu ezinezkoa dela, beraz, Euskal Herrian saiatu, eta bestela Ingalaterrara, Holandara edo Alemaniara joatea. Hurrengo pausua litzateke bakoitzak bere laborategia zabaltzea (zentro edo unibertsitate batean), proiektuetarako diru publiko edo pribatua lortzea, eta ikerketan jarraitzea. Baina ikusi beharko dugu.

Dorleta Vidal



## AMAIA HARATEGIA



**Bertoko Okelak**

Probaleku 5  
Tfnoa. 943 17 05 84

**Ermua**

es  
egolek  
electrizitatea  
iluminazioa

M. de Valdespina 14 · ERMUA  
943 17 00 61 · egolek@hotmail.com

Komunitateak

## San Pelayo

Aholkularitza  
juridikoa

Tel./Fax. 943 17 15 65 / 943 17 25 04  
San Pelayo 6-A (Eroski gainean) 46 P.K. - Ermua

arral97.com  
**arral**

Telf.: 943 17 60 75

**banatzaile ofiziala**

- Luis Cañas familia	- Pazo Señorans	- Txakoli Akarregi
- Añada Real	- Vicente Gandía	- Milana
- Vllera taldea	- Oriol Rossell	- La Loca Juana
- Gomez Cruzado	- Astobiza txakolina	- Nitida

arral@arral97.com - Pol. Ind. Goitondo Galkoa Parcela Pab. 1 - Mallabia

## OUTUMURO

### Kafetegia

Kafe eta tarta bereziak  
Aukera handia **TE** eta **INFUSIOETAN**

Astelehenetik ostiralera 9etan zabaltzen dugu



Karmele Gisasola, kirolaria:

## “Aita eukitzot entrenamentuetan albuen, bera da motibatzen eta laguntzen nauena”

Enpresen Administrazio eta Zuzendaritza gradua ikasten dabil Sarrikon. Azken urteotan herri kiroletan ikusi izan dogu junguran. Abuztuan, Markinen egindeko Bizkaiko eta Euskadiko txapelketan bigarren geratu zan.

**- Herri kirolen barruen, zer kirol praktikatzen dozuz?**

Trontza, txinga eta batez be ingude altzaketa edo jungura deitzen jakona, erderaz *levantamiento de yunke*.

**- Zertan datza junkura?**

Junkurie, nesken kasuen 10 kiloko ingudiaz 90 segunduen zenbat altzaldi egitten dien da. Mutillek 18 kiloko ingudie altzatzen dabe.

**- Noiztik zabilta?**

Oin dala bost urte trontziaz hasi giñen lengusiñie da bixok, baiña exhibiziñue-tarako hori bakarrik egittie gitxi zala eta, junguriaz hasi giñen. Jungurie ebalten oin dala bi urtetik nabil baiña txapelketarako entrenamenduek prestatzen aurtengo urtarrilletik.

**- Zelako entrenamenduek egitten dozuz?**

Ezberdinek, izen leikez 40ko hiru serie, 90 segunduen 12-13 kiloko ingudiaz zenbat altzaldi egin... Entrenamentuetan gogortxua ibiltzen gara gero txapelketan errezau ibiltzeko. Halan da be, oin arte plazan beti egitten izen dot gehitxua etxien baiño. Adibidez etxien 81 altzalditik gora ez naz pasau 90 segunduen eta txapelketan 84 altzau nittuen.

**- Zer maiztasunekin entrenatzen dozuz? Laguntzarik badaukezu?**

Ahalegintzen gara astien bi biderrez egitten, baina txapelketaren batera jueteko bi egunetik behin. Aita eukitzen dot entrenamentuetan albuen; ta eskerrak berai, bera dalako motibatzen eta laguntzen nauena.

**- Nundik datortzu afiziñue?**

Herri kirolak txikittetik



gustau izen jataz, etxien be hori bizi izen dotelako izengoda. Jaixo nintzenetik aita beti ibilli izen da plazaz plaza eta gero nebiek pe aittan afiziñuai jarraitu deutse.

**- Urtien ziber zelako ekinztetan parte hartzen dozuz?**

Normalien ezibiziñuek izeiten die, herriko jaixetan, auzuek, kaleko jaixetan... Udan bastante ezibiziño aukitzen doguz. Abuztuen Markiñen lehenengo aldiz egin zan nesken ingudeko eta txingetako Euskadiko eta Bizkaiko txapelketetan be parte hartu dot.

**- Zer moduz joan zan?**

Horretako preparau nintzen. Zazpi neskak hartu gendun parte eta bigarren geratu nintzen Euskadiko txapelketan; Bizkaiko txapelketan, plataformako modalitatien lehen postue eta

ra neban. Niretzako sorpresa haundixe izen zan, lehenik eta behin txapelketa baten parte hartu doten lehenengo aldixe izen zalako eta ez nebalako espero emaitza hori. Banakixen dana emon biher nabala baiña azkeneko postuetan gatzeko probabilitadie be bazauela jakindde.

**- Aurrera begire asmo barririk badaukezu?**

Datorren urtien be Euskadiko ingude altzaketako txapelketara juetie nahi dot, badakit ni baiño gogorrauek be badauezela baiña neure markie hobetu nahi neuke. Datorren urtien be Idahora jungo naz. Bertan bost urtetik behin ospatzen dan eskal astien herri kiroletan jardutera. Eduki doten sorpresaik haundixenatarikue izen da, ez dotzue egunero hola-ko notizixaik emoten, jaja!



**Ferreteria/Burdindegi**

- \* Burdindegia
- \* Tresneria
- \* Sarrailagintza
- \* Giltzak / Aginte automatikoak
- \* Ontziteria / Kopak / Mahai-tresnak
- \* Opari artikulua

**ANBOTO**

Zubiaurre 25, Ermua ☎ 943 17 69 76 @ fer\_anboto@hotmail.com  
www.ferreteriaanboto.es

**OSASUNA • ESTETIKA  
EDERTASUNA**

*Marfil*

*Ile-apaindegi bat  
baino gehiago!!*

Egokitutako burua  
garbitzeko konketa

943 17 28 09 • Goienkale 12

**ARRIETA CORDEVI**

Etxetresna elektrikoak,  
telebistak,  
musika-ekipoak...

...prezio eta kalitate  
ezin hobean.

VI. Centenario kalea, 5 - ERMUA



## 2014-2015 IKASTURTERAKO IKASTARUEK

**Spinning**

Arduradune: Itsaso Pradera  
Telf.: 943179848  
Lokala: Frontoie  
Egunek: Astelehenetik eguenera  
Ordutegixe: 19:00-21:00  
Egunek: Martitzena eta eguena  
Ordutegixe: 10:30-11:30  
Izena emotie: Arduradunari deitu

**Mantenuzko gimnasia**

Arduradune: Itsaso Pradera  
Telf.: 943179848  
Lokala: Frontoie  
Egunek/Ordutegixe: martitzena eta eguena: 19:00-20:00  
Izena emotie: Arduradunari deitu

**Body Pump**

Arduradune: Itsaso Pradera  
Telf.: 943179848  
Lokala: Frontoia  
Egunek/Ordutegixe: zehaztu barik  
Izena emotie: Arduradunari deitu

**Abesbatza gazte eta helduentzat**

Arduradune: Iratxe Uribelarra  
Telf.: 680706216  
Lokala: Zurrutokixe  
Egunek/Ordutegixe:  
Gaztie: Barikue: 19:00-20:30  
Helduek: Barikue: 20:30-22:00

**Gozatu! Dantza eta Kantu!**

Ahotsa eta kantue ardatz hartute,  
musikaz gozatzeko aukerie: abestiek,  
dantzak eta gorputz adierazpena.  
Arduradune: Igone Amesti  
Telf.: 680647235  
Adina: 6 urtetik aurrera

**Umeentzako euskal dantzak**

Telf.: 943176691  
Lokala: Eskolako Gimnasiue  
Egune: barikue  
Adina: 4 urtetik aurrera  
Izena emotie: kultur etxie. (Arratsaldez)

**Soiñue eta panderue**

Arduradune: Adolfo Jainaga  
Telf.: 943206266  
Lokala: Eskola  
Egune/Ordutegixe: Martitzena.  
16:00etatik aurrera  
Izena emotie: Arduradunari deitu

**Kzguna: GIMP eta KIZOA (DOHAINIK)**

GIMP: Irudi digitalen tratamendue  
Irudixek manipulatze eta ikutu  
fotografikuek egitako aplikaziñue  
KIZOA: Argazki-ukituak bizkor eta era  
errazien egitako aplikazioa  
Egunek: Urrixan 27tik 31ra.  
Ordutegixe: 9:00-11:00 / 11:00-13:00  
Izena emotie: Liburutegixen. Azken  
egune: urriak 16

**Yoga ikastarue**

Arduradune: Yolanda Napal  
Telf.: 615796058  
Lokala: Eskolako gimnasiue  
Egunek: Astelehena eta eguaztena  
Ordutegixe: 20:00-21:30  
Izena emotie: Arduradunari deitu.

**AEK**

Euskara ikastarue  
Goizez eta arratsaldez  
Matrikula dohainik: Azken egune: irailak  
26 Kultur Etxien.  
Telf.: 943171940 / kaltxango@aek.org  
(Kaltxango AEK – Ermua)

**TAILERRAK  
BERDINTASUN  
PLANAREN BARRUEN**

Mallabiko Udalak, III. Berdintasun Planaren barruen, tailer desberdiñek eskeiñiko ditte urritik aurrera. Horren artien, "Lanen trukea eta etxeko lanerako autonomia tailerrak" izenburupien lau orduko ondorengo ikastaruek eskeiñiko die: alde batetik "Garbiketa eta etxeko antolaketa" eta "Joskintza eta lisaketa" gizonentzat. Eta bestetik, "Iturgintzako oinarrizko konponketak" eta "Elektrizitate modulua" emakumientzat. Horrez gain, 9 orduko "Autoestima eta adimen emozionala" tailerra be eskeiñiko da. Ikastaro guztixek dohainik izengo die, eta irailan 30a arte ordutegi eta egunen inguruko gure iritzixe emoteko aukerie eukiko dogu udaletxe edo kultur etxien.

Igone Amesti  
eta Ibaia Azagirre



**SEHIGA**  
PROTECCIÓN LABORAL  
PLAN BABESARAKO  
ORNDURA

Goienkale kalea (Ermua)  
Tel: 943 172 454  
sehiga.proteccionlaboral@gmail.com




**DANAONA**  
IZOZTUAK ETA  
AURREKOZINATUAK

GOIENKALE Z/G  
ERMUA  
Tel. 943 030 112

MERKATU PLAZA 7  
ARRASATE  
Tel. 943 770 598



**mari  
asun**  
LORADENDA

Diputazioa 9 - ERMUA - Tel. 943 174379



**MALLABIKO  
Herriko  
taberna**

Egunko platera (3€),  
menua bokatak,  
plater konbinatuak,  
pintxoak, kazolak,  
arraina eta txuleta  
parrillan (enkarguz)...

**943 174 952**  
(asteartetan itxita)

**EUSKAL BIRUSEKO  
TALDEKIDE OHIEN  
BAZKARIA**

Euskal Birusa Elkartearen sorreran edo inoiz lan taldean ibilitako kideei bazkaria eskainiko die Euskal Birusak. Horren helburua da San Martin Azokaren 25. urteurrena ospatzea eta egindako lanagatik eskerrak ematea. Urriaren 18an egingo da bazkaria, Txalaparta Elkartean. Parte hartu nahi dutenek 943179350 edo 688632874 telefonoetara deitu beharko dute.

**XXVII JOSÉ MERINO  
MEMORIALA  
IRAILAREN 27AN  
IZANGO DA**


Ermuko Gaztela-Leongo Etxeak eta Gaztela-Leongo Atletismo Klubak XXVII. José Merino lasterketa antolatuko dute. Irailaren 27an burutuko da norgehiagoka, larunbata, eta 16:30ean hasiko da. Ordu horretan benjaminak korrituko dute, alevinak 16:45ean, infantilak 17:00etan, kadetak 17:15ean, aurrebenjaminak 17:30ean eta senior eta beterranoak 18:00etan. Azken horiek 10 kilometroko lasterketa egingo dute. Informazio gehiago nahi dutenek atletismo@castillayleonerma.es helbidera idatz dezakete.

**Eskerrik asko Txikurizale guztioi!**

Euskal Birusa Elkartek eskerrak eman nahi dizkie Santixau jaietako Txikurixan laguntza eman zioten guztiei: sukaldean ogitartekoak egin zituztenei, barran zerbitzatzen egon zirenei, garbiketa lanetan aritutakoei, tortillak egin zituztenei edota tragoak hartzera hurbildu zirenei... Lan asko zegoen egiteko eta aurten ere ez da laguntzarik falta! Euskal Birusa Elkartea Antxitxiketan Euskal Begirale Taldearekin batera aritu da antolaketa lanetan eta emaitzak primerakoak izan dira. Eskerrik asko eta datorren urtera arte!

**Liburutegiak irakurketa-klubei hasiera emango die**

Euskarazko, ingelesezko eta gaztelaniazko doako irakurketa-klubetan izena emateko epea zabaldu berri du Udal Liburutegiak. Klubetan parte hartu nahi dutenek, aldezturik agindutako liburua irakurri beharko dute. Hilabeteko epea izango dute horretarako, eta jarraian, Lobianon elkartuko dira aditu batekin, testuaz hitz egiteko, iruzkinak egiteko, iritziak emateko eta irakurketan bizitakoa adierazteko, besteak beste. Aipatutako klubek aurreko ikasturteko egutegia izango dute: euskarazko saioak hileko lehen astelehenean izango dira, 19:30etik 21:00etara; ingelesezkoak hileko lehen asteartean, 19:00etatik 20:30era; eta gaztelaniazkoak hileko lehen asteazkenean, 19:30etik 21:00etara. Ekimen hau urriaren lehenengo astean hasiko da. Euskarazko irakurleek urriaren azaroan eta abenduan irakurriko dituzten liburuak dira: *Kristalezko hiria* (Paul Auster), *Zazpi kolore* (Jon Arretxe) eta *Sisifo maite minez* (Laura Mintegi). Parte hartu nahi dutenek Udal Liburutegira deitu beharko dute (943179212) edo biblioteca@udalermua.net helbidera mezua idatzi.

**Vrieden taldeak irabazi du aurtengo Folkezblai**

Asturiasko Vrieden taldea izan da garailea Ermuko Udalak urtero antolatzen duen Folkezblai lehiaketan. Horrek 3.000 euroko saria jaso du, eta bigarren sailkatuak, Alén de Ancos talde galiziarak, 1.500ekoa. Epaimahaiaren esanetan, "finalerako sailkatu diren taldeek maila oso ona eta proposamen aukera zabala erakutsi dute". Saria jaso duten taldeez gain, finalera heldu dira Naia (Valentzia), Irish Corner (Katalunia), Duerna (Asturias) eta Enverea (Extremadura). Oso positibotzat jo dute aurtengo lehiaketa eta datorren urtekoa, XX.a, buru-belarri prestatzen hasiko direla aditzera eman dute antolatzaileek.



**MUGA** **KIROLAK**

San Pelaio 4A behea  
Telefona: 17 64 77  
ERMUA

**MALLA**  
**ileapaindegia**

Probaleku 8, behea © 943 17 18 50

**Zure publizitatea:**  
**drogeteniturri**  
**aldizkarian**

943 179350 / 688 632876  
drogeten@gmail.com

Iberikoetan  
espezialistak

**Mayte**

Denda berria

VI Centenario 5 · ERMUA  
943 172 412

**J. LUCAS**  
**PINTURA EN GENERAL**

630 22 51 36



## Ermuko saihesbidea egiteko lanak hasi dira



Ermuko saihesbideak bi zati ditu (bat, herriaren men-debaldean eta bestea, hegoaldean), eta dagoeneko hegoko zatian lanean dihardute. Zati hau Ermua eta Zaldibarko udal-mugarteetatik doa. Areitiotik datorren N-634 errepidean, Metales La Vega fabrikaren parean, N-634 errepidearekiko lotuneko biribilgune berria eratu da. Biribilgune berritik, hau da, Uretamendi Iparreko biribilgunetik, Ureta mendia zeharkatuko du ibilbideak hego-ekialdetik 590 m-ko bi zuloko tunel baten bidez, zeharkako bi galeriekin lotuta. Beko erre-kako ibarreko irteeran, biribilgune bat proposatzen da,

zati batez egungo trenbidearen gainean. Uretamendi Hegoa izeneko biribilgunetik, ibilbidea aire zabalean doa Beko erre-kako ibarretik, AP-8 autopistaren paraleloan San Laurendiko biribilgunearekin lotu arte (Gipuzkoako Foru Aldundia eraikitzen ari den Eibarko saihesbidearen barruan sartzen da tarte hori). Hauxe da proiektuaren zati txiki bat, baina interesa dutenek Bizkaiko Foru Aldundiak zabaldu duen bulegora jo dezake-te (Izelaieta kalean, 10:00-14:00 eta 16:00-20:00).

## XXI. Juanita Ibaibarriaga martxan da

Juanita Ibaibarriaga Euskarazko Literatur eta Erreportaje lehiaketa antolatu du aurten ere Udal Euskara Sailak. Aurrekoetan bezala, bi kategoria egongo dira. Lehen modalitate herriko haur guztiei zabalik dago eta bereziki LHko 3, 4, 5 eta 6. mailako eta DBHko lehen eta bigarren mailako ikasleei. Bigarren modalitatean, berriz, nagusien lanak bilduko dira. Batzuek zein besteek azaroaren 6a baino lehen aurkeztu beharko dituzte euren testuak (Euskara Sailean, Lobianon edo euskara@udalermua.net helbide-ra bidalita).

### III. TOPAEGUNA DERION IZANGO DA

Urriaren 11n ospatuko da aur-tengo TopaEguna, hau da, Euskal Herri osoko euskaltza-leak bilduko dituen jai eguna. Egun osoko egitaraua prestatu dute jada Euskaltzaleen Topaguneak eta Tximintx Derioko Euskara Elkarteak. Interesa dutenek topagunea.eus atarian topatu-ko dituzte zehaztasunak.

### DEBABARRENA BTT MARTXA URRIAREN 19AN IZANGO DA

Elgoibarko Udal Kirol Patronatuak eta Debegesa Garapen Agentziak antolatuta-ko lasterketan parte hartzeko urriaren 17a baino lehen eman beharko da izena ([www.kirol-probak.com](http://www.kirol-probak.com) helbidean). Probak bi ibilbide izango ditu eta parte hartzeko 12€ ordain-du beharko dituzte federatuek eta 15€ gainontzekoek.

## INGELES, ALEMANA, FRANTSESA, ITALIERA...

### Matrikula zabalik 2014/2015

- ✓ Talde mugatuak eta homegeneoak lau urtetik aurrera
- ✓ Irakasle natiboak eta/edo atzerriko hizkuntza irakasteko kualifikatuak eta esperientzia handiarekin
- ✓ Cambridgeko azterketetan %95eko gaitzituak
- ✓ Akerlei metodoa, 20 urte hezten
- ✓ Zure aurrerapena, historialak eta ebaluaketa informeak, edo zure seme-alabena, online begiratu
- ✓ Arbel digitalak, wi-fi, ordenagailu-gela, etab.
- ✓ Gainera: ekintzak, tailerrak, udalekuak...

**Akerlei**  
hizkuntzak

BIZKAIA ETORBIDEA, 5 Behea - ERMUA

**943 17 66 32**

[www.akerlei.com](http://www.akerlei.com)

**25. SAN MARTIN AZOKAN:**

\* Errifak eskatzeko azken eguna, urriaren 17a

**100€**  
(tabernariak)**50€**  
(dendariak)

=



+



688632874


Errifen takoa eskuratu nahi duten tabernariak 100€ ordaindu (dendariak, 50€) eta laguntzaile bandera jasoko dute. Informazioa: 943179350

**LEIRE ETA IKER ELUSTONDOK GIROTUKO DUTE IRAILEKO ERMUAN KANTUAN**

Irailaren 27an burutuko da uda osteko lehen Ermuan Kantuan kalejira, eta bertan Leire eta Iker Elustondo nebarrek parte hartuko dute. Abestu eta abestiez gozatu nahi duten ermuarrak 12:30ean elkartuko dira plazan. Beste alde batetik, Euskal Birusa Elkarteak Ermuko kantuzaleei gonbitea helarazi nahi die. Izan ere, Hego Haixe kantu bazkaria ospatuko da Markina-Xemeinen urriaren 4an, larunbata. 13:00tan elkartuko dira Kontzejupean, kantu-liburuak banaketa egin, eta triki-kantu-poteoari hasiera eman go diote. 14:30ean, bazkaria egingo dute Laboraleko jantokian. Bertan, musikari nafarrak eta eskualdekoak egongo dira, lehiaketak eta sorpresak, guztia Angel Mariezkurrenak aurkeztua. Tikitak 20 eurotan salduko dira (kantu-liburua opari).

**25. San Martin Azoka azaroaren 8an izango da**

Mende laurdena igaro da Euskal Birusa Elkarteak San Martin Azoka estreinakoz antolatutuzuenetik. 25. urteurren hau ospatzeko, hitzordu berezia izango dute ermuar eta euskaltzale guztiek azaroaren 8an, larunbatean. Izan ere, hainbat berrikuntza prestatzen dihardu Euskal Birusak, tartean, animalien azoka handiagoa eta idi pare baten jaitziera Zubiaurretik. Horrez gain, erakusleihu eta jantzi lehiaketak egingo dira, babajana Merkatu plazan (umeeak 5 euro eta helduek 10), talo ikastaroa, erromeria Luhartz taldearekin... Egun horretan musu-truk laguntzeko prest zaudeten guztiak ongi etorriak izango zarete (deitu 943179350 edo 688632874 telefonora).



bideratu ahalko dute parte hartzeko eskabidea. Ezti, sagardo eta txakolin lehiaketetan, berriz, Bizkaiko udalerririk guztietako ekoizleak. Salbuespen moduan, mugakide den Eibarko ekoizleak ere eskabidea bidera dezakete. Plaza mugatuak.

**Nekazari eta ekoizleak**

Azokan parte hartu nahi duten nekazari eta ekoizleak urriaren 6a eta 17a bitartean eman beharko dute izena Ermuko Udaleko Euskara Sailean (943179147). Durangaldeko nahiz Lea-Artibaiko eskualdeko herrietako ekoizle zein nekazariak

**Artisauak**

Aurreko urteetan bezala, artisauen postuak ipiniko dira elizako plazatxoan. Euren produktuak bertan ikusgarri ipini nahi dituztenek ere izena eman beharko dute alde aurretik (943179350 edo 688632874 telefonoan). Plaza mugatuak.

**Bertso jaialdia**

Aurtengo bertso saioa urriaren 31n izango da, Ermua Antzokian, 22:15ean. Maialen Lujanbio, Uxue Alberdi, Onintza Enbeita, Alaia Martin, Nerea Ibarzabal eta Andoni Egaña arituko dira bertsoan, eta Ainhoa Aranburu izango da gai jartzailea. Sarrerak 10 eurotan ipiniko dira salgai, eta alde aurretik erosi ahal izango dira Lobiano Kultur Gunean, Kutxabankeko kutxazainetan eta webgunean eta 944310310 telefonoan.

**BERRITZE LANAK**  
ZURE ERAIKINEAN  
Ez dakizu nondik hasi?  
GURE LANTALDE TEKNIKOAK  
LAGUNDUKO DIZU

**ZUK ERABAKI**

www.spara.es  
info@spara.es  
943 17 70 57

IZARRA CENTRE Eraikina Zeharkalea, 36, 3º 48260 Ermua -Bizkaia-

**Sagarra**  
Gastro-Pub

Probaleku 4 · Ermua · 943 946 810



**Euskaraz  
blai**

# MATRIKULA ZABALIK 2014/2015

**ESKAITZA ETA  
ORDUTEGI ZABALAK**

**TXANDAKAKO TALDEAK**

**1., 2. ETA 3. HIZKUNTZA  
ESKAKIZUNAK / EGA**

**AZTERKETA OFIZIALAK  
MAIATZEAN ETA URRIAN**

**BEKA SISTEMA  
Langabetuek eta  
lehen mailako ikasleek,  
prezio erdia**

**IZENA EMATEKO EPEA:  
IRAILAREN 25ERA ARTE  
9:00etatik 13:00etara eta  
16:30etik 20:00etara**



**UDAL  
EUSKALTEGIAK**  
euskara klaseak

**14-15**  
IKASTURTEA

## ERMUKO UDAL EUSKALTEGIA

Teresa Murga eraikina - Goienkale Z/g, 2. solairua

Telefona: 943 17 09 25

[euskaltegia@udalermua.net](mailto:euskaltegia@udalermua.net)

[www.ermua.es/pags/euskaltegia](http://www.ermua.es/pags/euskaltegia)

# 1794. Ermua, su eta gar artean kiskalduta

“Egun beltza” bezala ere izendatua izan da. Orain 220 urteko abuztuaren 29a beltza izango zen bai, eta ez bakarrik Ermuko herrian ejertzito frantsesak sortutako sutearen gar eta keen ondorioz. Etorkizun iluna aurrean, gorriak eta bat ikusiko zituzten, bizirik geratu arren, euren senide eta ondasun apurrak galdu zituzten herritar gizagaixoek. Gertutik ezagutu ditzagun egun hartako gertakariak.

**B**ertako historia zaleok beti topatu gara Ermuari buruz dokumentazio eskasiari aurre egin ezinik. Bateko suak, besteko urak edo haratagoko gudak aurretikoan kontuez umezurtz laga gaituzte. Baina bi urtez luzatutako Konbentzio Gudan ermuarrek jasandako sarraskiak, “Ermuko Bataila” gisa izendatuko zen hark, hainbat autoreen interesa piztuko du: Juan Ramón de Iturriaza, José Manuel Azcona, Jon Irazabal, Ricardo González Izarra... Murgil gaitezen bada eraso, tiro, bolbora eta txinparta artean.

**1793ko martxoa.** Espainiako Erresumak eta Frantziako Errepublikak euren arteko liskarrei ematen diote hasiera. Bizkaiko Jaurerriak lasai ikusten du bere burua, Frantziako mugetatik nolabait urrun dagoelako eta, balizko erasoaldiren batean, arerioak Gipuzkoa lehenago hartuko duelako mendean. Itsasotik erasotzea ez da egingarri ikusten; itsasertzaren orografia malkartsu eta

porturatze zailtasunei erreparatzea besterik ez dago. Urte horretako buruz burukoak Espainiako arma-gizonen aldekoa suertatzen denez, bizkaitarrek konfiantza berreskuratzen dute.

1794 baina beste kolore bates dator. Gipuzkoak, ia aurre egin barik, amore eman eta burua makurtzen du aldra frantsesen aurrean; Bizkaiak bere lur-eremuen ate-atean gudarekin egingo du tope. Herritarrek eguneroko zeregina baztertu eta erasoaldi posible bati aurre egiteko prestatzen hasiko dira, beti ere boluntarioak diruz eta armaz hornitzeko Bizkaiko Diputazioaren konpromisoa lagun. Lurraldeak dituen gabezien jakitun, Jaurerriko mandatariek lau gune sendotuz prestatzen dute frantses ejertzitoaren kontrako defentsa; Ermua leku estrategikoa eta esanguratsua izango da babestu behar horretan.

**1794ko abuztuaren 29a.** 1600 gudariz osatutako tropa frantsesa Ermurantz

abiatzen da. Jadanik indarrez hartuta dute Eibar eta 1.000 gizon laga dituzte bertan, atzeguardia gisa. Eguerdia aldea da eta bizkaitarrek aurre egiten diete Olarreagako zubian “con fuego mui ??? vivo y sostenido y se le rechaza hasta tres veces”. Joaquín de Larrinagak, Ermuko posizioaren buruzagi militarra, bertan dago eta guztiaren berri emango dio Diputazioari. Eibarren agindu zain geratutako zutabeak aurrera egiten du; Sallabenteko ermitaraino ailegatzen da kontrarioa. Pare bat orduz eusten diote bizkaitarrek erasoaldiari, baina arratsaldeko lauretan Larrinagak defentsan parte hartu duen Jose M<sup>a</sup> Orbe markesarekin, “con el mejor orden” erretiratzea erabakitzen du. Frantsesek sua ematen diote herriari, 7 etxe ez beste denak kiskalduz. 76 etxe erreko dira,

tartean Udaletxea, Udal Artxiboa eta Ospital Santua. Cossanne buruzagi frantziarrak bere txosten ofizialean aditzera ematen duen bezala: “El pueblo fue saquedo e incendiado y nosotros no nos fuimos más que cuando no quedó vestigio alguno. Nos fuimos a las 7 de la tarde quemando todo lo que encontramos a nuestro paso, supongo que no debe quedar ni en Ermua ni en Eibar ni una sola casa. Te indico que no nos olvidamos de dos fundiciones y cuatro molinos”.

Egunak 22 hildako eta 24 zauritu lagako ditu herritarren artean, orduan idatzitako eskuizkribuetan *bandoleiros*, *paisanaje armado* edota *esclavos* deitutako horien artean. Erasotzaileek, oster, 200 gudari galdu zituzten bizkaitarren kontaketa eta Gravierrek antza bestelako matematika sistema bat era-



Frantsesak indarrez sartu ziren egun hartan argazkiko antzerkilariek baino irribarre gutxiago sumatuko zuten bazterretan.



**CITROËN**  
**AUTOS AMEDI**  
Zearreko buelta eraikina 3, L8 pab.  
Telefona 943 17 04 14

DESCUBRE-TE  
Teak, kafeak, txokolateak,  
eztia... eta baxera bereziak!!

Probaleku 4 Bis · Ermua, Bizkaia  
943 03 15 81 · descubretenew@hotmail.com  
www.teteriadescubre-te.com



**Montis DQ Mouth**



bili zuen: 10 gizon besterik ez omen zituen galdu.

Kostata egin zuen Ermuak aurrera. Galera pertsonalei, lursail eta sare industrialaren erabateko suntsiketa gehitu behar. Burdinola eta armagintzari lotua bizi zen herria ordura arte; bertan

egindako giltz zein armen kutzak (*katxia* Ermuko armeroen esanetan) entzute handiko eta kalitaterik onenetakoak omen ziren orduko denboretan. Gudaren ondorioz armagintza lantegiak mugetatik urruntzeko erabakia hartzen da eta Asturias aldera, Trubiara eraman

zituzten Errege Fabrikak, honek bailarako armagintzarentzat suposatuko zuen gainbeherarekin.

Bandera bat ere badago historia honetan, Cossaneren idatziak akordura ekartzen diguna, frantsesek gerrako harrapakin bezala eraman eta

inork ez dakiena non dagoe-na: "La bandera distintiva de los bandoleros fue tomada por el ciudadano Ducré (...) y no tardará en ofrecértela". Parisko Les Invalides museoan ote dago? Ermukoa ote zen harrapatutako hori? Agian norbaitek, egunen batean...

Estibalitz González

FOGUERACION 1745 ERMUA

**ERMUA (Villa)**

Calle de Izurilieta (B<sup>o</sup> de Iruñeta en la Fog. de 1704)

Casa perteneciente a los Trinitarios de la ciudad de Pamplona; tiene una huerta; / Ant<sup>o</sup> Izaguirre. La de Jq. Odrisolo (sic). La de dichos Trinitarios; / D<sup>o</sup> Zubizarreta. La del Cab<sup>o</sup> Ecl<sup>o</sup>; / Jo. Aguinaga. Bt<sup>o</sup> Olaechea; / D<sup>o</sup> Isasi. La del marqués de Valdespina; / Ml. Arcetio. F<sup>o</sup> Arcetio; / Bt<sup>o</sup> Mendiola. La del marqués de Valdespina, donde vive. J. Cruz Eguia; / Jo. Aranburu, horganista. La del Cab<sup>o</sup> Ecl<sup>o</sup>; / D<sup>o</sup> Goicoechea. D<sup>o</sup> Gomizaga. P<sup>o</sup> Mendiola. Ig<sup>o</sup> Trusta, cura; / J. Bt<sup>o</sup> Salinas. Jo. Ascarate (sic), residente en Sevilla; / Jq. Orbe. J. Fd<sup>o</sup> Ugarte, v<sup>o</sup> de Bilbao; / Ig<sup>o</sup> Irusta. Dos del marqués de Valdespina; / J. Urteaga y Sg<sup>o</sup> Izaguirre. Ag. Marquina, v<sup>o</sup> de Mallabia; / Lz<sup>o</sup> Mallagarai.

**Calle de Güencalle**

La casa de An. Mendiola. Ig<sup>o</sup> Arguiarro. Ga. Gomizaga. Lz<sup>o</sup> Uribarri. Fc<sup>o</sup> Gabiria. Ms. Inchurrieta (?), v<sup>o</sup> de Mondragón; / Fc<sup>o</sup> Arcetio. Lz<sup>o</sup> Ribas; / Jt<sup>o</sup> Trebiño.

**Calle de Zubiaurre**

La casa de P<sup>o</sup> Urizar; / J<sup>o</sup> Sagastizaga. J. Ibarra. La del marqués de Valdespina; / Jt<sup>o</sup> Olabe. Bt<sup>o</sup> Aguinaga. Phélix Eguia. Jo. Mallagarai. La del duque de Granada; / An. Urigüen. La de J. ..., v<sup>o</sup> de Bilbao; / Ml. Amillategui. M<sup>o</sup> Eguren, cura; / Sg<sup>o</sup> Izaguirre. La del marqués de Valdespina; / J. Hormaechea. La del capitán Jo. de Arauna y Mallea, v<sup>o</sup> de Elorrio; / Ml. Urteaga. La casa-mo<sup>o</sup> del mismo; / Ant<sup>o</sup> Barañano. La casa-torre del citado capitán [Jo. de Arauna y Mallea]; / Mn. Ascarate. La del conde de Salvatierra; / Jo. Arguiarren. La del capitán Jo. de Arauna y Mallea; / Bt<sup>o</sup> Olaechea. La de las RR. Dominicas de Elorrio; / Ig<sup>o</sup> Bildosola. Ig<sup>o</sup> Mallagarai. Dos de la Cap<sup>o</sup> de Urquiza; / D<sup>o</sup> Gabiria. La de las RR. Dominicas de Elorrio; / P<sup>o</sup> Egoecheaga.

**Calle de Barrencalle**

La del marqués de Valdespina; / Fc<sup>o</sup> Izaguirre. Ant<sup>o</sup> López de Urizar; / Cs. Maza. La de dicho marqués; / J. Miguezna (sic). Jo. Arguiarren. Dos de la Cap<sup>o</sup> de Aranburu; / Cat<sup>o</sup> Eguren. La que adm<sup>o</sup> Jo. Goitia, v<sup>o</sup> de Bilbao; / Ig<sup>o</sup> Aguado. La del capitán Jo. de Arauna y Mallea; / Seb. Urcofa. La de dicho marqués; / Gr. Larzurain (sic). La de las RR. Dominicas de Elorrio; / Ml. Jq. Aresmendí. La casa-torre sin concluir; de dicho marqués. La de P<sup>o</sup> Lebario, v<sup>o</sup> de Abadiano; / M<sup>o</sup> Bt<sup>o</sup> Ribas. D<sup>o</sup> Aranzibia; / Bt<sup>o</sup> Iturrino. Ig<sup>o</sup> Zulueta. Fc<sup>o</sup> Trebiño.

**Calle de Artecalle**

La casa de Jq. Odrisolo; / M<sup>o</sup> Achábal. Ana M<sup>o</sup> Barinaga. J. Uriarte; / Domeca Arcetio. P<sup>o</sup> López de Urizar; / Ant<sup>o</sup> Urquiza. P<sup>o</sup> Arribas. Sg<sup>o</sup> Olaechea. La del marqués de Valdespina; / D<sup>o</sup> Gabiria. La de la Redención de Cautivos; / Bt<sup>o</sup> Sarobe. La de las RR. Dominicas de Elorrio; / Is. Mallagarai. An. Erleta, cura. D<sup>o</sup> Aguiarro. Ml. Marquibar. Ant<sup>o</sup> López de Urizar; / Ra. Erleta. La de dicho marqués; / Ilario Egoecheaga. M<sup>o</sup> Eguren, cura.

**Caserías:**

**Espilla:** M<sup>o</sup> Espilla  
**San Lorenzo:** Fc<sup>o</sup> Arcetio.  
**Elorrieta:** J. Fd<sup>o</sup> Ugarte; / Mn. Izaguirre.  
**Abateche:** de la igl<sup>o</sup>; / Gre<sup>o</sup> Lasarte.  
**Leungarai:** de la igl<sup>o</sup>; / Mn. Lasarte.  
**Total:** 80 casas, y 79 y 1/2 fogueras.

1745eko Ermuko fogerazioa (hau da, kalez-kalez padroia): 80 etxeko herria.

1796ko fogerazioa: 25 etxe. Sutean 76 etxe erre ziren erdigunean.

FOGUERACION 1796 ERMUA FICA

Eguia: M<sup>o</sup> Sáenz de Aldecoa; no vive nadie.  
 Eguia, otra: Ms. Ortúzar; no vive nadie.  
 La de To. Ondaro; nadie vive. La de J. Arrotegui; nadie vive. La de Mn. Idoiaga; / Ana Mendibil.  
 Echachúa: M<sup>o</sup> Barrenechea; nadie vive.  
 ... Las cuatro casas llamadas **Urigoitia, Ansuena, Beazco-Garai, y Arrotegui beazcoa**, propias respectivamente de J. Ant<sup>o</sup> de Abóitiz, Cris. de Bollar, Cris. de Mareategui, y de Ad. de Arrotegui-beazcoa, se comprendieron en la fogueración de la Antei<sup>o</sup> de **Nabáriz**, pero en el día se reputan todas quatro casas por fogueras de esta de **Ereño**...

**Casas arruinadas de Ereño después del año 1704:**  
 Las casillas de Eguia, Casa Rica, Torrea, Mendicoechea, Arabáster, y Echechueta.

**ERMUA (Villa)**

**Calle Barrencalle**  
 El palacio del marqués de Valdespina. La casa de Dg<sup>o</sup> Trebiño.

**Calle de Zubiaurre**  
 La de las RR. Dominicas de Elorrio. La de Fc<sup>o</sup> Arguiarro.  
**Ongarai:** del Cab<sup>o</sup> Ecl<sup>o</sup> de esta villa.  
 La de J. Mallagarai. Un mo<sup>o</sup> con habitación; de la vd<sup>o</sup> del capitán Arauna y Mallea. La casa-torre de los duques de Granada.

**Calle Goicalle**  
 La de Jabier Gomizaga. Nicolasa Arcetio. Jo. Arguiarro. An. Aguado.  
**Cercaburu:** del marqués de Valdespina.


**Calle Artecalle**  
 Dos de Ig<sup>o</sup> Astiazaran. La de Rita Urizar.

**Calle de Idulietta**  
**Mendiola:** Ml. Ribas.  
**Abeleche:** del Cab<sup>o</sup> Ecl<sup>o</sup>.  
 La de Jo. Arguiarro y Erleta.  
**Iturricoa:** Jo. L<sup>o</sup> Odrisolo.  
**Elorreta:** del conde de Peñaflores.  
**Elorreta,** otra: del marqués de Santa Cruz.  
**Espilla:** Mn. Lz<sup>o</sup> Aranburu.  
 La casa titulada **San Lorenzo:** Fc<sup>o</sup> Arcetio.  
 El mo<sup>o</sup> inmediato: del marqués de Valdespina.  
**Total:** 25 casas, y 28 y 1/2 fogueras.

**FICA (Antei<sup>o</sup>)**

**Gorozica zaguera:** D<sup>o</sup> Gorozica.  
**Arteaga:** D<sup>o</sup> Uriarte.

hamburguesería  
**TITANIC**



Pintxo dastaketa poteoan

Kantabria 2 • Tlf: 17 67 83



optika  
**ITZE**

✓ ENTZUMENAREN DOHAINEKO KONTROLAK  
 ✓ AUDIFONOETAN AZKENENGO TEKNOLOGIA

Probaleku, 7 Tfnoa. 943 17 46 51

**ILEAPAINDEGIA**

*Tzaskun*

Goienkale, 9 (Plaza San Martín)  
 48260 Ermua Bizkaia  
 Tel. 943.17 66 90

**ILEAPAINDEGIA**

**T**XALAPARTA ABERNA

Eta asteburuetan pintxoak, afariak eta bokatak!

- Itsaskabra pudina.
- Txipiroiak.
- Piper beteak: okela edo onddoak.
- Fritoak: urdaiazpikoa edo onddoak.
- Redondo saltsan.
- Sagar tarta.
- Gazta tarta.
- Tortila patata...

Erdikokale 13 (Ermua) **ENKARGYAK 943 030 299**

**Enter**

INFORMÁTICA

SALMENTAK / IRAKASKUNTZA / ZERBITZU TEKNIKOA

VI Centenario 19, behea  
 Tel. 943 17 90 37  
 e-maila: enter-i@arrakis.es

# DANIEL DOMINGUEZ

- **Zerekin amesten zenuen gaztetan?**

Amets handirik ez dut eduki. Heldua izatean eskolan jarraitu nahi nuen.

- **Zertan jardun zenuen arroneko?**

Ikasketak bukatuta, Derioko artxiboan egon nintzen bekadun urtebetez. Hauteskundeetan gaineko inkestak egin nituen gero, eta 2007tik irakasle lanetan nabil.

- **Zer ematen dizu horrelako lan batek?**

Gauzak irakasteko etengabe ikasi behar duzula, eta ikasle askorekin lortzen duzun harreman positiboa.

- **Historia irakasteak duen alde txarra...**

Historiaren arazoa da ikuspuntu politikotik lantzen dela. Hori saihestea gatzaren arren, badaude bestelako aldaketak kontuan hartu beharrekoak: gizartea, egunerokotasuna, zelan bizi zen jende arrunta...

- **Zein ordutan hasten zara beharrean?**

Egunaren arabera, gaur 8etan adibidez... Gure ordutegia ikasleena baino askoz hobea da!

- **Ordutegi ezin hobea duen arren, zer dago txanponaren beste aldean?**

Azterketak zuzentzea txarrena da niretzat!

- **Nola lasaitzen duzu zure burua?**

Ezer ez egiten. Bakarrik egoten, isiltasunean, telebistatik gabe, irratirik gabe. Egunean ordutxo bat edo eman dezaket horrela.



**Mari Josek eta José Luisek seme bakarra dute: Daniel Domínguez. Ikasle zenean, eskolara gustura joaten zen horietakoa. 31 urte ditu, eta Historia Orokorrean lizentziatutako irakaslea da. Ermuan, Bilbon, Durangon eta Igorren aritu da nerabeak hezten.**

- **Ermuko irakurketa-klubean izena emana duzu...**

Liburua aukeratu, irakurri, eta hileko lehen astelehenean komentatzen dugu. Eztabaida sortzen da. Gainera, urtean behin idazleren bat etortzen da. Pako Aristi, edo Harkaitz Cano ezagutu ditugu.

- **Zein da irakurri duzun libururik onena?**

Anjel Lertxundiren *Etxeko Hautsa*.

- **Bada gomendatuko ez zenuen libururik?**

*Zamaontzia*, Iñigo Aranbarriarena.

- **Mendia ala itsasoa?**

Biak.

- **Kirol zalea ere bazara...**

Orain alfertuta nabil. Lehen mendira joaten nintzen. Ea martxan jartzen naizen berriro!

- **Zeintzuk dira garaitu dituzun tontorrak?**

Pirinioak, Alpeak edo Toubkal. Marokora egin nuen bidaiarik luzeena, beste lau lagunekin batera. Oso ondo

pasa genuen, txarrena den-dariekin *regateoan* aritzea. Nekagarria zen.

- **Kolore bat?**

Bat esatearren, berdea. Naturaren kolorea.

- **Oroitzapenen bat...**

Uda honetan Portugalen ikusitako ilunabarra.

- **San Martin Azokan kolaboratzen duzu.**

Lau bat urte daramatzat ta-loak erosteko tiketak saltzen.

- **Eguneko unerik onena?**

Afaldu osteko tartea.

- **Jateko...**

Arraina.

- **Zerk alaitzen zaitu?**

Batetik, gazte konprometitua, interesgarriak eta langileak daudela ikusteak. Bestetik, denbora libre izateak, eta denbora libre hori disfrutatzeak.

- **Berriz jaioko bazina...**

Konforme nago hartutako bidearekin. Erabaki txikiak, ordea, aldatuko nituzke.

- **Bizitzak zer irakatsi dizu?**

Latzak diren arazoak, ez direla horren gogorak.

- **Akatsik baduzu?**

Asko. Ez naiz fotogenikoa, pazientzia gutxi dut...

- **Hizkuntzekin ondo?**

Euskara eta gaztelarekin ondo konpontzen naiz, galegoa eta ingelesa uler ditzaket.

- **Zer aldatuko zenuke herrian?**

Trenbide guztia estaliko nuke, eta goiko aldean Ermutik Eibarrera paseoa joateko bidea eraiki. Horrela, trenak egiten duen zarata saihestuko genuke.

Leire Elustondo

*Pub Dakota*

Probaleku, z/g  
Ermua (Bizkaia)  
dakotaermua@hotmail.com

**KRABI**  
Ileapaindegia  
Estetika

Tel: 943 03 17 56      Diputazio, 5      ERMUA



# Eva García eta Jabi Alberdi Muztagh Atan egon dira

Zero azpitik 40 graduko tenperaturak pairatu behar izan dituzte Artarraiko bi kide hauek Muztagh Ataren gailurrera igotzeko. 7.500 metro baino gehiago ditu mendi horrek eta Txinako Himalayan dago, Tibetik aldentuta, Kirzigistanen ondoan. Bidaia gazi-goza izan da, tartean arazo fisikoak eta kontratatutako gidariaren erabaki okerrak jasan dituztelako.

Muztagh Ata, edo izotzen gailurraren aita (7.546 m.). Haren magalean uigur etnia bizi da, kirguiz taldekoak zehazki, Txinarekin gatazka larria duen herria. Eva eta Jabi ermurrak abuztuan egon dira bertan, mendizaletasunak erakarritako, eta hiru arrazoi direla-eta aukeratu zuten Muztagh Ata mendia: ez dagoelako masifikatuta, altua delako eta ez delako oso teknikoa, fisikoa baizik.

Sei mendizalez osatutako taldean ibili dira, gidariak gain, eta arazoak berehala hasi ziren. Evari janariak egin zion kalte lehen egunetan; Jabiri, aldiz, hotzak egin zion min. “Nire kasuan agintziaren errua izan zen —dio Jabik—. Gure isolatzaileak ez eramateko esan ziguten, euren utziko zizkigutela. Baina horiek oso kalitate eskaseko-

ak ziren eta hotza barruraino sartu zitzaizkan. Horren ordez, guztion materiala eramateko agindu ziguten”.

Hala ere, hogeita egun egon ziren mendian —kanpamentutik kanpamentura joateko beharrezko epea—, gorputza aklimatatzeko eta materiala apurka-apurka igotzen joateko. “Gora eta behera ibili behar izatea oso neketsua da —diote—, baina ezinbestekoa da gorputza eta arnas-keta ohitzen joateko”.

Gailurrera igo behar zuten egunean, Jabik kanpamentuan geratu behar izan zuen, hotzez hil beharrean. Baina Evak eta 4 taldekideek 18 ordu egin zituzten oinez. Zer dela eta? Mendi horretara igotzeko hiru kanpamentu daude, baina haien gidariak erabaki zuen hirugarrenera ez joatea: bigarrenetik gailurrera jotzea zuzenean. “Erabaki eskasa izan zen. Ni ondo nindoan —dio Evak—, baina gure taldeko pare bategi, besteok emandako laguntza barik, arazo oso larriak izango zituzten. Lurrera jausten ziren, logurarekin, nekeak jota”.



## Taldearen arrakasta

Onartzen dute sekula ez dutela horrenbesteko hotza jasan, eta 5 kilo inguru galdu ditu bakoitzak, baina bidaia alde oso positiboak ere izan ditu. “Eva bakarrik igo da gailurrera baina gu biok talde bat osatzen dugu, beraz, arrakasta lortu dugu. Gainera, bidaia gogorra izan arren, asko ikasi dugu”, diote.

Bukatutakoan, Kasgarren deskantsatu zuten egun bat eta, jarraian, egun eta erdi eman zuten Pekinen, tartean, Txinako Harresia ikusten.

Dagoeneko hurrengo espedizioari bueltak ematen dihardute eta, beharbada, Aconcagua (6.960m.) izan daiteke helmuga berria. Jabi

bertan egon zen duela urte batzuk eta, lau mendizale jogan arren, bera bakarrik igo zen tontorreraino. “Evarekin joateak eta biok tontorreraino heltzeak ilusioa egingo lidake”, aitortzen du. Hori bai, “gidari barik”, argitzen dute.

8.000 metroko mendia egitea ere gustatuko litzaietako, baina aklimatazio egokia egin ahal izateko 50 bat egun dira beharrezkoak. “Zaila egiten zaigu lanean horrenbeste egun libre lortu ahal izatea, eta gainera orain izan dugun aurrekontuaren hirukoitzak beharko genuke, diruzta. Gaur egun, zoritxarrez, babesleak topatzea ez da baxter erraza”.

Dorleta Vidal



**Caperos**

Pinxoak · Razioak · Kaxolak · Plater konbinatuak · Ogitartekoak  
Probaleku z/g (Ermua) 699 292 043 · 636 549 154

**Egaña**

ETXETRESNA ELEKTRIKOEN  
SALMENTA ETA KONPONKETA

Diputazioa 7 (Ermua) · 943 17 66 08

# Gizabanakoen arduraren zentzuaren inguruan

**M**ugikortasun Jasangarriaren Astea ospatu berri da Europa osoan. Hori dela-eta, gure herrietako administrazioek martxan ipini dituzten ekintzetan parte hartzeko gonbitea egin digute. Gure kaleen diseinua izan da aurtengo gaia, hobeto bizitzeko aukera emango digun herria lortu ahal izateko.

Horren arabera, gure ingurunearen eragin txikiena duten mugikortasun-aukerak lehenetsi behar ko genituzke. Hau da: oinez joan, bizikletan edo, era motorizatuan izatekotan, garraio publikoan.

Beharbada ez dugu mugikortasunean larregi pentsatzen. Horrek izugarritzko eragin txarra du gure ingurunean, eta ez dago gure poltsikoen, distantzien edo erosotasunaren menpe, gure buruen

menpe baizik. Gure neuronen artean galduta dagoen zerbait da, eta bertara jotzen dugu edonora joateko kotxea hartzen dugunean, zalantza egin barik eta beste aukera batzuk baloratu gabe. Kotxea da gure birrikak pozoitzen dituen altxor maitea eta kaleak okupatzen dituena; planetan dagoen espazioaren banaketan ikaragarri insolidarioa dena eta gure paisaiak errukirik gabe suntsitzen dituena.

Beharbada jakin beharko genuke eskola inguruetan kotxe batek ume bat harrapatzen duenean, %80an irakasleak daudela inplikatura, beste ume batzuen gurasoak ez badira, jakina, euren umeak eskolara seguruago eramaten dituztelakoan.

Beharbada jakin beharko genuke autobus pribatuetan eskolara doa-



*Isa Prieto*

zen umeek toxina kopuru itzelak arnasten dituztela, autobus horiek sortutakoak, hain zuzen ere.

Beharbada jakin beharko genuke zenbat espazio lapurtzen dieten errepideek, aparkalekuek eta azpiegiturek umeen jolastokiei, plaza eta berdeguneei...

Beharbada, nor bere erantzukizuna aktibatu beharko luke, berehalakotasuna eta ekonomia irizpide bakarrak ez izateko erabakiak hartzeko uneen... Orduan, beharbada, mundu guztiaren ahotan dagoen eraldaketari hasiera ematen egongo ginateke, guztiok amesten duguna, baina zeinen alde gutxi dauden prest pausuak emateko.

**Jakin beharko genuke zenbat espazio lapurtzen dieten errepideek umeen jolastokiei**



**FOTOKOPIAK**  
**KOLOREZKO FOTOKOPIAK**  
**HANDIPENAK - TXIKIPENAK**  
**PLANOAK - AZALEZTAPENAK**  
**FAX PUBLIKOAK**  
**INPRIMAKETAK KAMISSETATAN**

Komentukua, 6 behea 48260 ERMUA TEL. / FAX 943 17 42 89



**TOLDOS Y PERSIANAS ORBE**

- MUNTAIA ETA KONPONKETA
- MOTORIZAZIOA
- PERTSIANA DEKORATIBOAK
- PERTSIANA BILGARRIAK
- SEGURTASUN PERTSIANAK
- MOSKITERAK
- ESTOREAK
- GORTINAK

TAILERRA: Zearreko buelta, 2  
 Tel. 943 17 66 34  
 Tel. mugikorra 630 01 13 41  
 48260 ERMUA (Bizkaia)

ERAKUSKETA: Karabixa, 1  
 Tel. 943 17 98 60  
 48260 ERMUA (Bizkaia)

**solozabal**  
**tabakoak**

torrekua 1  
 tel./fax: 943 17 07 33



**URRETA** burdindenda

- \* Etxea
- \* Tresneria
- \* Brikolajea
- \* Ebnailak
- \* Giltzak
- \* Sarrailagintza
- \* Kit altzariak

Zeharkalea 8 Tel: 943 17 65 61 ERMUA



**LANA**

Txakur hezitzailea eskaintzen da (oinarrizko obediencia, talde heziketa eta portaera arazoak).  
© 665714057 (Andoni).

Emakumea eskaintzen da pertsona nagusiak zaintzeko, orduka. Esperientzia daukat ostalaritzan, garbiketan, sukaldean eta zerbitzari lanak egiten.  
© 645 19 44 23

- Drogeteniturrri aldizkariak koordinatzailea behar du. Baloratuko dena: Euskaraduna izatea, ondo idazten jakitea, Kazetaritza ikasketak izatea, Quark eta Photoshop erabiltzen jakitea, Ermua edo Mallabikoa izatea, eta lidergo eta koordinazio gaitasuna izatea. Interesatuak drogeten@gmail.com helbidera bidali beharko dute curriculuma urriaren 6a baino lehen.



**Irailaren 25a:** Zorionak Ainere zure lehenengo urtebetetzean! Ondo pasa eguna eta muxu handi bat zure familiaren partez.



**Irailaren 30ean** Zorionak, eta ondo ospatu zure eguna. Musu handi bat etxe-koen partez.



**Irailaren 19an** Zorionak Aiur, 8 musu handi aita, Jon eta amaren partez.



**Abuztuaren 2an** Zorionak Benat, Hamma, Maier, Aiora eta Xubanen partez. Patxo potolo bat!



**Irailaren 17an** Zorionak Gorane zure 7. urtebetetzean aitita-amama, osaba-izeba eta, bereziki, zure gurasoen partez.



**Abuztuaren 19an eta irailaren 21ean** Zorionak Gorka eta June aita eta amaren partez.



**Irailaren 13an** Zorionak Henar!! Zure adin-nagusitasunean asko maite zaitugula esan nahi dizugu. Aita-ama eta nebaren partez.



**Irailaren 3an** Hau zure urtea izan da benetan! Zorionak familiaren partez.



**Irailaren 5ean** Txapelduna zara, jarraitu horrela! Familia osoak asko maite zaitu. Zorionak!!



**Irailaren 10ean eta 15ean** Zorionak Peru eta amatxo!! Patxo handi bat etxeko guztion partez.



**LARRA eta EMILIO** Zorionak bikote zuen 40. urteurrengatik. Besarkada bat familiaren partez.



**LARRA eta EMILIO** Zorionak bikote zuen 40. urteurrengatik. Besarkada bat familiaren partez.




**Irailaren 22an** Zorionak Ainhoa! Ondo pasa familiaren partez, batez ere zure mutiltxoen partez. Noizko afaria? Muxu bat!

**M<sup>a</sup> Luisa Eguia**

**Uztailaren 19an hil zen, 93 urte zituela**

*Gure atsekabea eta elkertasuna adierazi nahi dizkiegu haren senide eta lagunei.*



**Euskal Birusa**

**Hurrengo zenbakirako azken eguna: URRIAREN 15a**


**Proba-Leku**

*Neopaindegia - Estetika*



**Probaleku 3, 1A**

**Tel. 943 17 05 42**



**PUB YOMY**

**Zubiaurre kalearen bihotzean**



**SAGARDUI**

*poltsak*

**Zubiaurre, 29 - Ermua · 943 170305**

**MALLABIA  
1949**

Argazki hau 1949ko maiatzaren 20an aterata dago, Begoñako Amaren prozesiñuen. Astoak tiratzen zuen karruen agertzen dira: Paulina Milikua, Mari Nieves Arriaga, Rosita Aranzeta, Marisol Aranzeta, Rosita Gorrotxategi eta Pilar Areitioaurtena.

**ERMUA  
1975**

Argazki hau Puente Madrekko udalekuetan aterata dago, Logroño, 1975ean.

Bertan agertzen dira, atzeko aldean, ezkerretik esku-mara: Kati Urzainki, Ana Totorika, Idoia Urzainki, ---, Aintzane Asumendi eta, mantarekin, Beatriz Narbaiza. Aurrean, eserita, atzetik aurrera eta ezkerretik esku-mara: Betirtze Mugerza, Irune Asumendi, Amaia Arriaga, Ander Idigoras, Juan Manuel Asumendi eta Aitor Izagirre.

Euskal Biruseko koordinatzailea den Amaia Arriagaren hitzak: "Irune, lagun maitea. Txiki txikitan elkartu ginen ikastolan eta unibertsitatera ere elkarrekin joan ginen. Bizitza erdia bata bestearen ondoan pasatu genuen! Gero gure bideak desberdinak izan dira, baina gure arteko adiskidetasuna mantendu dugu.

Euskal Birusaren sorreran ere elkarrekin izan ginen. Santa Anako lokalean egiten ziren lehen bilera haiek! Donostia aldean ibili zara hainbeste urtez jendea euskalduntzen. Zuk ere Euskal Birusa zabaltzeari ekin diozu! Ermuan Santixauetan Txikuriko sukaldean ere aritu izan gara, euskararen alde bokadiloak egiten!

Irune zure bizipoza, alaitasuna, naturaltasuna, eskuzabaltasuna, kemena, karakterra (amak dio berengandik jasotakoa dela) gurekin mantenduko ditugu. Zure lagunen bihotzean izango zara beti!

Irune, lagun maitea".

**uriarte asesores** ✓

**Aholkularitza fiskala  
eta lege aholkularitza**

Komentukoa 3 behea · Tel. 943 179 040 · Faxe 943 179 197  
48260 · Ermua · Bizkaia

**Pub SCORPIO**



Zubiaurre, 21  
**ERMUA**



**Urtebete igaro da TAO sistema martxan ipini zenetik (hau da, Trafiko eta Aparkamenduaren Ordenamendua). Ordutik, txandakako 45 aparkaleku daude herrian, gehienez ordubetez erabil daitezkeenak. Horien helburua da, Udalaren arabera, “zerbitzu eta ostalaritzarentzat lagungarri eta suspergarri izatea”.**

**Igaro den urtebetean, TAO erabili duzu? Bere helburua bete duela esango zenuke?**



Bai, erabili izan dut eta egokia dela iruditzen zait, aparkalekua *mugitu* egiten delako. Ordubeteko epea ere ondo dagoela iruditzen zait eta, merkataritzari begira, larunbatetan martxan egotea ere ondo ikusten dut. Lehen zailagoa zen erdigunean aparkalekua topatzea.

**Manuel Jiménez, 48 urte**



Ez dut sekula erabili, kotxerik ez daukadalako. Baina argi dago TAOk ez duela helburua betetzen. Ostalaritzan egiten dut lana eta ez da batere jenderik *mugitzen*: batzuk aparkalekurik ez dutelako topatzen, TAO delako, zabalenerako gunea delako... Dena delakoagatik jendeak arazoak ditu kotxearekin.

**Nelia Lucia Mendes, 30 urte**



Ez dut inoiz erabili eta helburua ez duela betetzen uste dut. Gainera, larunbat arratsaldetako soberan dagoela esango nuke. Lehen bezala hobeto egongo litzateke, hau da, aparkamendu librea.

**Jose Antonio Arronategi, 48 urte**



Nik ez dut erabiltzen, baina familiakoek bai, eta haietzako eroso da: etxe inguruan aparkalekua topatzea errazagoa delako orain lehen baino. Bestalde, gustatuko litzaidake esatea TAOk bere helburua betetzen duela, baina ez daukat horren gaineko daturik.

**Maria Luisa Pérez, 62 urte**

**Tasio eta Sabino**



**ZINEA**

**4tik 6ra**  
**11tik 13ra**  
**18tik 20ra**  
**25etik 27ra**  
 Ermua Antzokian.  
 Hainbat film eta ordutegi.

**ZINE-KLUBA**

**Hilak 2**  
**Hilak 9**  
**Hilak 16**  
**Hilak 23**  
**Hilak 30**  
 Ermua Antzokian.  
 Hainbat film. 20:30ean.

**UMEENTZAKO ZINEA**

**Hilak 5**  
**Hilak 12**  
**Hilak 19**  
**Hilak 26**  
 Ermua Antzokian.  
 Hainbat film. 17:00etan.

**UMEENTZAKO EKITALDIK**

**Hilaren 3an, 10ean, 17an, 24an eta 31n:**  
 Haurrentzako jolasak (Barixakuetan)  
 17:00etan. Orbe kardenalaren plazan.

**MUSIKA**

**Hilak 3:**  
 Kontzertua: Rozalén.  
 22:15ean. Ermua Antzokian. Sarrera: 10€



**Hilak 17:**  
 Kontzertua: "Viva Verdi!". Pispillu Abesbatza + Opera Divertimento. 22:15ean. Ermua Antzokian. Sarrera: 8€

**Hilak 18:**  
 Blues Kontzertua: Andy J. Forest & Travellin Brothers. 20:00etan. Lobiano Kultur Gunean. Sarrera. 8€

**Hilak 24:**  
 Antzerki-kontzertua: The Funamviolistas. 22:15ean. Ermua Antzokian. Sarrera: 10€



**ANTZERKIA**

**Hilak 10:**  
 "La maté porque era tuya", Sutegi taldearen eskutik. 22:15ean. Ermua Antzokian. Sarrera: 8€

**ERAKUSKETAK**

**Hilaren 12ra arte:**  
 "Emakumeen aztarnak, aztarna feministak: gure borrokaren oroimena".

**Hilaren 13tik 25era:**  
 Mikologiari buruzko argazkiak.

**Hilaren 27tik 15era:**  
 Eskulturak: Ángel Gil. 18:00etatik 20:00etara. Lobiano Kultur Gunean.

**HAINBAT EKITALDI**

**Hilaren 5era arte:**  
 Gaztela-Leoneko kultur astea: hainbat ekitaldi. Orbe kardenalaren plazan, San Pelaio plazan eta elkartearen egoitzan.

**Hilaren 13ra arte.**  
 Mendiko aste kulturala: hainbat ekitaldi. Lobiano Kultur Gunean eta Ermua antzokian.

**Hilaren 3tik 5era:**  
 Erdi aroko azoka. Goizez eta arratsaldez. San Pelaio plazan. Antolatzailea: Gaztela-Leoneko kultur zentroa.

**Hilak 18:**  
 Motordunen jaia: hainbat ekitaldi. 16:00etatik. Probalekun.

**Hilaren 23tik 26ra:**  
 Mikologiari buruzko jardunaldiak: hainbat ekitaldi. Orbe Kardenalaren plazan eta Lobiano Kultur Gunean.

**Hilak 31:**  
 Bertso-saioa:



Onintza Enbeita, Maialen Lujanbio, Uxue Alberdi, Alaia Martin, Nerea Ibarzabal eta Andoni Egaña. Gai jartzailea: Ainhoa Aranburu. Ermua Antzokian. Sarrera: 10€

Patxi López

**TXINDURRI TALDEA**  
**Tokian tokiko**

**PRO**

- ARRAINDEGIA  
 - ITSASKIAK  
 - ARRAIN FRESKOAK ETA IZOZTUAK

**ESKAINZA BEREZIA OSTIRALERO**

Zubiaurre, 21 baxua  
 Tfnoa. 17 16 96 (despatxua)  
 " 17 24 33 (etxea)  
 Merkatu Plaza, Tfnoa. 17 41 59  
 ERMUA

**Infreñu Taberna**

Kardenal Orbe plaza  
 943 174584  
 www.infretaberna.com

**ALBOKA**

**MUSIKA ESKOLA**

- Akordeoia
- Klarinetea
- Biolina
- Panderoa
- Biolontxelo
- Perkusioa
- Bonbardinoa
- Pianoa
- Flauta
- Saxofoia
- Kantua
- Trikitrixa
- Gitarra
- Tronboia
- Gitarra elektrikoa
- Tronpeta
- Gitarra baxua
- Txistua
- Lengoia musikala

Tel. 943 17 12 98 / 943 17 18 00 • albokamusikaeskola@hotmail.com



**LEIRE MAYORA**  
**PODOLOGOA**  
 Erdikokale 1, 1. A  
 48260 Ermua  
 © 943 17 47 44

**Irale**  
 hortz klinika  
**Leire Irazu Garitaonandia**

- Ortodontzia
- Aho zirujia
- Pedriodontzia
- Implanteak
- Odontologia orokorra

Zeharkale 8, behea 943 17 71 34  
 www.irale.com

**Yoga eskola**  
 Arnasketa eta ariketa fisiko egokiak  
 Erlaxazioa eta meditazioa  
 Osteopatia eta bertebrologia  
 Anginak sendatzeko masajea

**Sanatana Dharma**

San Roke 24, behea  
 943 74 85 93  
 685 722131 (Idoia)

**san pelayo**  
 clínica dental hortz klinika

Inplanteak  
 Ortodontzia  
 Periodontzia  
 Hortz -zuriketa / Estetika dentala  
 Odontologia orokorra  
 Protesiak  
 P.A.D.I. - I.M.Q. - SANITAS

San Pelayo 5, 1. Olatz Garcia Arregui  
 Ermua (Bizkaia) 943 17 04 04

# OSASUN GIDA

**NEREA IÑIGUEZ**  
**HORTZ KLINIKA**

- Aho eta inplante kirurgia
- Hortzetako protesiak
- Hortz estetika
- Ortodontzia
- Odontopediatria
- Endodontzia eta odontologia kontserbadorea

Hortz klinika berri eta handitu dugu

San Inazio 4 Tel.: 943 030 512  
 Ermua niklinika@gmail.com

fisioterapia  
 eta osteopatia  
 zentroa  
**aitziber**

Aitziber Fernández  
 Telf. 943 17 60 95  
 629 88 70 89  
 Sexto Centenario 13,behea  
 48260 ERMUA (Bizkaia)

**NATURA**

Cristina García Pérez

- Elikagai biologikoak
- Terapia naturalak
- Naturopatarekin kontsultak
- Masajeak
- Dietistarekin kontsultak
- Kosmetika biologikoa

Belar-denda eta dietetika

Zeharkale 12 behea esk. · ERMUA  
 943176594/naturcriss77@hotmail.com

**Osasun gidan agertu nahi baduzu,  
 deitu 943 17 93 50 edo 688 63 28 76 telefonoetara  
 edo idatzi drogeten@gmail.com helbidera**

# aek

euskara praktikoa

## ERMUKO KALTXANGO AEK

- Euskalduntzea
- 4. maila (C2) aurrez aurre
- Azterketa ofizialak prestatzeko ikastaroak
- Autoikaskuntza
- Berbalagun
- Txandaka aritzeko aukera
- %75era arteko diru-laguntzak

BIZKAIA ETORBIDEA 13 BEHEA  
943 171940  
kaltxango@aek.org

Cozar - AEK-ko ikaslea

Esperientzia. Metodologia. Gertutasuna. Modulazioak. Efikazia.



Eskolak



Mintza  
praktika



Barnetegiak



On line



Autoikaskuntza



Normalizazio  
planak



Titulu  
homologatuak

aek

Garena ikasteko  
para entendemos  
pour se comprendre

eman izena

673 200 100  
946 464 000  
www.aek.eus

